



AGINDUA, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateen Legearen aurreproiektua prestatzeko aurretiazko kontsulta egiteko dena.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateen Legearen aurreproiektua egiteko prozedura hasteko asmoa du.

Proiektu horren bidez Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legea lege-testu berri batekin ordeztzea da asmoa; izan ere, lege hura hogeitun urtetik gora egon da indarrean, eta gaur egun zaharkituta dago. Testu berri horrek euskal unibertsitateei aukera emango die azken urteetan izandako aldaketa zientifikoei, teknologikoei, hezkuntzakoei eta kulturei aurre egiteko, ahalik eta modurik onenean bete ahal izan ditzaten ikertzeko, prestatzeko eta ezagutza transferitzeko eginkizunak eta modu erabakigarrian lagundu ahal izan dezaten euskal herritarren bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa hobetzen. Horretarako, ez da nahikoa oraingo legearen kapitulu edo titulu batzuk aldatzea; aitzitik, osorik berraztertu behar da.

Hala, testuaren zirriborro bat eduki aurretik, kontsulta honen bidez ahotsa eman nahi zaie herritarrei eta ukitutako entitateei, gardentasun-ariketa bat eta demokrazia indartzeko ariketa bat eginez, inongo aukerari aterik itxi gabe, proiektu honi buruz duten iritzia adieraz dezaten eta iradokizunak egin ditzaten, bai eta erregulatzekoa den gaiarekin lotutako edozein alderdi adieraz dezaten ere.

6/2022 Legearen 11. artikuluari jarraituz (6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena), lege-aurreproiektua egiten hasi aurretik, kontsulta publikoa egingo da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan iragarki bat jarrita. Iragarki horretan, herritarrek berriaz gonbidatuko dira besteak beste alderdi hauei buruzko iritzia ematera: arau onestearen premia eta egokitasuna, arauaren xedeak, haren bidez konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako konponbide erregulatzailerak eta erregulatzailerak ez direnak.

Aurrekoa betez, eta abiarazi nahi den legegintza-ekimenaren xedeak zer-nolako garrantzia eta ondorioak dituen kontuan hartuta, honen bidez gonbita egiten zaie prestatu nahi den etorkizuneko lege-esparru horren eraginpean dauden entitateei eta herritarrei iritzia eman dezaten eranskinean jasotako informazioaz, kontsulta hau Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzen denetik hogeitun egun balioudun igaro baino lehen.

Horrenbestez, eta 18/2024 Dekretuaren 17.1 artikulua sail honi esleitutako eskumenak baliatuz (18/2024 Dekretua, ekainaren 23koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen), gero dekretu hura aldatu zuen 36/2024 Dekretuaren artikulua bakarraren Bat.zortzi apartatua kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Unibertsitateen Euskal Legearen aurreproiekturako aurretiazko kontsultaren izapidea egitea, testu juridiko arauemaile bat idazten hasi aurretik, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legeak (6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa) 11. artikuluan agintzen duen bezala.





Bigarrena.– Arauak eragiten dien entitate eta erakundeek eta herritarrek, hala nahi badute, agindu honen eranskinean azaltzen diren alderdiei buruz dituzten iritziak helaraz ditzakete, kontsulta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik hogeit egun baliodun igaro baino lehen.

Vitoria-Gasteizen sinadura elektronikoaren datan,

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua,
JUAN IGNACIO PÉREZ IGLESIAS.



ERANSKINA

ONARPENAREN PREMIA ETA EGOKITASUNA

Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legea onartu zenetik bi hamarkada igaro dira, eta aldaketa nabarmenak gertatu dira euskal gizartean eta haren ingurunean, bai eta Euskadiko esparru akademikoan, zientifikoan eta berrikuntzan ere. Hari eragiten dion estatu-esparru normatiboa ere aldatu da, bai unibertsitate-arloan, bai zientziaren eta berrikuntzaren arloetan. 2004ko arauak nahiko ondo bete du bere zeregina. Baina, aipatutako aldaketak kontuan hartuta eta gizateria izaten ari den trantsizio handiak kontuan hartuta, beharrezkoa da hura eguneratzea, oraingo errealitatera egokitzeko eta gizartean duen zereginak eragin handiagoa eta hobea izango duela bermatuko duten alderdi berriak sartzeko.

Unibertsitateen Lege berriak eredu propio bat eratu behar du, gure sistemaren ezaugarri diren aniztasunetik eta osagarritasunetik ahalik eta errendimendurik onena aterako duena. Eredu horrek emaitzak optimizatu behar ditu ezagutza aurreratua sortzeari dagokionez, eta gai izan behar du euskal gizartearen oparotasunaren, gizarte horretako herritarren ongizatearen, haren zentzu komunitarioaren, sakontze demokratikoaren eta kohesio sozialaren zerbitzura jartzeko.

XIII. Legegintzaldiko Gobernu Programak, 2024ko urriaren 1eko Gobernu Kontseiluak onartua bera, 2027an Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legea aldatzeko lege-proiektu bat onartzea aurreikusten du. Hala ere, egokiagotzat jotzen da araua osorik aldatzea. Izan ere, 3/2004 Legearen titulu eta kapitulu ia guztiak berraztertu behar dira.

ARAUAREN HELBURUAK

a) Arauen ikuspegitik euskal unibertsitate-sistema propio eta askotariko baten oinarri izango diren printzipioak ezartzea, euskal gizarteak goi-mailako prestakuntzan, ikerketan eta ezagutzaren transferentzian dituen beharrei erantzuteko gai izango den euskal unibertsitate-sistema batenak.

b) Unibertsitate-sistemaren funtzionamendua arautzea, kalitateko unibertsitateak bultzatzeko, eskaintza akademiko osagarriak eginez, pentsaera kritikoa sustatzen dutenak eta kualifikazio handiko profesionalak prestatzeko balio dutenak.

c) Ikerketaren bikaintasuna sustatzea, aukera ematen duena abangoardiako ezagutza sortzeko, haren emaitzak ingurune sozioekonomiko eta instituzionalera transferitzeko eta gizarteari zabaltzeko.

d) Euskararen erabilera unibertsitate-bizitzaren eremu guztietan sustatzea eta, horrela, laguntza handia ekartzea euskara belaunaldien artean transmititu dadin eta haren gizarte-prestigioa sendotu dadin.

e) Euskal Unibertsitate Sistema nazioartekoagoa izatea lortzea, unibertsitateko komunitatea osatzen duten pertsonen nazioarteko esperientzia indartu eta zabal dadin eta sistemaren erakargarritasuna gure mugetatik harago areagotu dadin.

f) Ikasleen eskubideak eta betebeharrak adieraztea, eta ikaskuntza behar den bezalakoa izateko EAEko unibertsitateek behar diren baldintzak betetzen dituztela eta behar diren baliabide materialak dituztela bermatzea.

g) Irakasle eta ikertzaileentzako eta kudeaketako, administrazioiko eta zerbitzuetako langile teknikoentzako lan-baldintza onak, haien egonkortasuna eta unibertsitate publikoko lanaldi osoko



kontratazioa sustatzea.

h) Ikerkuntzako euskal karrera hasierako etapetatik indartuko duen eta kualifikazio handiko ikertzaileak erakartzea, atxikitzea, zaintzea eta aberriratzea sustatuko duen arau-esparru bat ezartzea.

i) Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitate-jardueraren kalitatea ebaluatzeko sistemak finkatzea.

j) Unibertsitate publikoaren finantza-esparrua arautzea, gaitasun ekonomikoa bermatuz eta euskal gizartearen erronkei eta beharrei hobekien erantzungo dieten jarduera-ildoak sustatuko dituzten tresnak dituela bermatuz.

k) Lanerako eta ikaskuntzarako ingurune osasungarriak bultzatuko dituen arau-esparru bat ezartzea, bai ikasleen eta bai unibertsitateko profesionalen ongizate psikologikoa babestuko duena.

EKIMENAREN BIDEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK

EAEko unibertsitate-araudia egokitzea, gaur egungo gizartearen erronkei aurre egin ahal izango dien unibertsitate-sistema bikain bat lortzeko eta, horrela, arau bat izateko Unibertsitate Sistemaren martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikotik eratorritako Estatuko ordenamendu juridiko berriaren esparruan.

IZAN LITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILEAK ETA EZ-ERREGULATZAILEAK

Lehen aukera erregulatzailerak Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen indarraldia luzatzea da, baina ez da egokitzen jotzen, azaldukoagatik. Bigarren aukera oraingo testua aldatzea da, baina aukera hori baztertu egin zen hasiera batean. Izan ere, adierazi bezala, oraingo errealitate legal eta sozialari erreparatuz gero, indarrean dagoen legearen ia titulu guztiak goitik behera berraztertzea komeni da —legea gaur egun zaharkituta dago—, euskal gizarteak aurre egin behar dien erronkei ahalik eta erantzun onena emateko moduko arau-esparru bat izan dezan EAEk.

Gainera, helburu horiei lege-mailako arau batetik heldu behar zaie, eta aukerarik onena, beraz, indarrean dagoena ordeztuko duen lege bat egitea da, eta ez dira bideragarritzat jotzen legezko bermeak eta segurtasun juridikoa ematen dituzten baina erregulatzailerak ez diren alternatibak.